Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Migel Okina Salsamendi

Bergara, Gipuzkoa
(1924-2021)



Aurkibidea

Biografia



Bergarako Barrenkalean jaio zen Migel. Ama bergararra zuen, eta aita, berriz, aretxabaletarra. Ospitaleko mojekin hasi zen eskolan, eta zazpi urterekin, Errepublikarekin, Herriko Eskolara pasatu zen. Euskal liburuak zituzten bertan, eta klaseak euskaraz jasotzen zituzten. Gerra denboran San Blas (Buruñao) eta Elosu auzoetan babestu ziren familiakoak. Gerrako kontu gogorrak azaltzen ditu. Zura lantzen zuen artisau familiakoa zen, baina Simon Arrieta pintoreak irakatsita, bera ere pintore bihurtu zen. Bartzelonan, Madrilen eta Parisen landu zuen pinturarako zaletasuna, bohemioen erara biziz. Zaletasuna lanbide bilakatu zitzaion, eta bere artista-bizimoduko hainbat pasarte azaltzen ditu. Migelen loba Josu ere egon zen elkarrizketan.

Zintak

BER-306

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa
- **Data**: 2011-01-11
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Etxe azpian, Oilagorra taberna

- **Erref**: BER-306/003
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:01:59. **Bukatu**: 00:03:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Etxe azpian erloju denda egon zen, eta gero Oilagorra taberna jarri zuten, 1934an. Ehiztariek jaten zuten bertan.

2. Ospitaleko mojekin eta herri eskolan

- **Erref**: BER-306/004
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:03:25. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolan ospitaleko mojetan ibili zen eta gero herri eskolan. Basterra eta Zabal maisuak izan zituen. Primo de Riveraren diktadura amaitu, eta Errepublika etorri zen: isiltasunetik zalapartara. Gurutzeak kendu zituzten eskoletan.

3. Euskarazko liburuak erre egin zituzten

- **Erref**: BER-306/006
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:05:28. **Bukatu**: 00:06:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskarazko liburuak erre zituzten, Francoren tropak sartu zirenean, irailaren 22an. Errepublika garaian "Xabiertxo" liburua erabili zuten eskolan. Apaizak ere dena euskaraz egiten zuen elizan.

4. Zentro karlista eta batzokia Bergaran

- **Erref**: BER-306/007
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:06:24. **Bukatu**: 00:08:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Bergaran zentro karlista eta batzokia elkarren ondoan zeuden. Antzezlanak egiten zituzten. Gasteizera joan zen batzokitik txangoan, eta baita Sabino Aranaren hilobia bisitatzera ere. Batzokia non zegoen. Falangea non egon zen. Ikastola gerra aurrean San Pedro plazan zegoen.

5. Euskaraz ikasi zuen, Errepublika sasoian

- **Erref**: BER-306/008

- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:08:15. **Bukatu**: 00:09:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan euskaraz ikasi zuten Errepublika garaian. Geografia "lutelestia" zen eta matematikak ere euskaraz: batuketa, kenketa...

6. Antzuolako sakristaua hil zuten Bergaran

- **Erref**: BER-306/010
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:09:22. **Bukatu**: 00:12:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerrako oroitzapenak. Tropak sartu zirenean, kasinoa sakeatu zuten, eta gauzak plazan erre zituzten. Milizianoek Antzuolako sakristaua kartzelatik atera eta hil egin zuten; asturiarrak izan ote ziren. Labaderoan bota zuten gorpua, eta mutikoak ikustera joan ziren.

7. Baserrira ezkutatzera, gerra sasoian

- **Erref**: BER-306/011
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:12:09. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra sasoian mutikoa zen, eta errekan ibiltzen zen, arrantzan. Bergaran egon zen, baina bi hilabete egin zituen baserriren batean: gerra hasi zenean, Agerremuinora joan zen amarekin eta arrebarekin eta bukaerako hilabetea Elosuko bentan eman zuen.

8. Elgetan zegoen frontea

- **Erref**: BER-306/012
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:15:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Agerremuino baserria San Blas azpian dago. Elgetan zegoen frontea, eta tiro hotsa izugarria zen. Francoren aldekoak asko ziren eta ondo armatuta zeuden; besteak, berriz, ez.

9. Elgeta zeharo apurtuta

- **Erref**: BER-306/013
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:16:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Frontea apurtu zutenean, Elgetara joan ziren, ikustera. Elgeta zeharo apurtuta zegoen. Gerra tristea dela dio.

10. Gerrako lehenengo egunetan, bonbak

- **Erref**: BER-306/015
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:16:31. **Bukatu**: 00:17:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Teilatuak ametrailatu ei zituzten Bergaran... Migelek ez du gogoratzen. Hegazkinek bonbak bota zituzten, lehenengo egunetan, baina gero italianoak eta alemanak egin ziren zeruaren jabe.

11. Nazionalak Bergaran sartu zirenekoa

- **Erref**: BER-306/017
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:17:36. **Bukatu**: 00:19:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Nazionalak Bergarara sartu zirenean, Uzkudun boxeolaria ikusi zuen, falangista jantzita. Apaizak pistolekin zihoazen. Gerora, Agorrosinen mutiko falanjisten kanpalekua egon zen, eta orduan ere apaizak pistola zerabilen. 1954an Barrenkalen defilatzen ikusi zituen. Karlistak zeuden Bergaran falanjistak baino gehiago. Ohikoa zen familietan seme bat karlista eta bestea nazionalista izatea.

12. Monzonen etxea eta batzokia errekisatuta

- **Erref**: BER-306/018
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:19:41. **Bukatu**: 00:21:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:
Monzonen etxea eta batzokia errekisatu egin zituzten. "Falange de las Jons" letreroa pintarazi zioten berari. Herriak hartzen zituztenean, desfileak egiten zituzten, baina bera ez zen joaten. Frontea apurtu artean eskolarik ez zen izan; gero bai.

13. Pintatzen nolatan hasi zen; soldadutzan, koronelaretzat pintatzen

- **Erref**: BER-306/020
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:21:25. **Bukatu**: 00:24:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Egur tailarekin hasi zen, eta Simon Arrietak esan zion ondo marrazten zuela. Berarekin hasi zen. Donostiako lehiaketa batean 3. saria irabazi zuen, eta diruaren zati batekin joan zen soldadutzara. Han koronelarentzat koadro bat margotu zuen, "la batalla de Bailen". Bergarako kondeak bere berri eman zion koronelari, eta primeran egon zen han.

14. Simon Arrietarekin ikasi zuen; Bartzelonan, ijito kanpalekuan

- **Erref**: BER-306/021
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:24:59. **Bukatu**: 00:28:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Simon Arrietak erakutsi zion gehien. Bartzelonan, Madrilen... ere ibili zen. Bartzelonara joan zenean, modelo ijitoa nahi zuten. Ijito kanpaleku batera joan ziren, bila. Bergarako gizon bat bizi zen han, alabarekin.

15. Bartzelonako, Madrilgo eta Pariseko pintura eskoletan

- **Erref**: BER-306/023
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:29:06. **Bukatu**: 00:31:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Bartzelonan pintura eskola batean egon zen; Madrilen eta Parisen ere bai. Harrituta geratu zen Madrilen, modeloak biluzik ikusi zituenean. Escuela de San Fernando. Ez zen asko ordaintzen.

16. Parisen, familia batekin bizitzen

- **Erref**: BER-306/025
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:32:23. **Bukatu**: 00:34:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Parisen etxe batean egon zen, hiru hilabetez; ez zioten asko kobratzen. Patronak biluzien marrazki batzuk eskatu zizkion, logelan jartzeko. Margolari ospetsuekin harremanik ez zuen izan Parisen (Picasso eta). Abstrakturako joera handirik ez du izan berak.

17. Parisen, cabaret batean gertatutakoa

- **Erref**: BER-306/027
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:34:46. **Bukatu**: 00:36:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Migel Egiaren osaba bat postari zegoen Parisen, eta harekin ibiltzen zen bera. Cabaret estiloko taberna batean egon ziren, eta zozketa bat zegoen; tokatuz gero, txiste bat kontatu eta dantza egin behar zen. Berari egokitu zitzaion, eta postaria igo zen oholtzara. Bi txanpain botila eman zizkieten.

18. Jendarme euskaldunekin debalde bazkaltzen

- **Erref**: BER-306/028
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:36:47. **Bukatu**: 00:38:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Lagun postariaren anaia jendarme moduan zegoen lanean. Jendarmeekin bazkaldu zuten, debalde; jendarme asko euskaldunak ziren, Iparraldekoak.

19. Bartzelonan, poliziarena egiten

- **Erref**: BER-306/029
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:38:59. **Bukatu**: 00:40:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Metroan ibiltzen zen. Polizia ibili zen Bartzelonan; bi polizia zeuden pentsioan, bata treneko interbentorea. Erretratua egin zion bati, eta txapa utzi zion, lekuetara debalde sartzeko.

20. Bergarara buelta beti; Madrileko giroa

- **Erref**: BER-306/030
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:40:53. **Bukatu**: 00:43:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Leku askotan ibili arren, Bergarara gustura bueltatzen zen. Simon Arrieta margolariari ere gauza bera gertatzen zitzaion. Madrilen ere bazegoen txikiteoa, baina urte batzuen buruan bueltatu zenean, dena aldatuta zegoen: giroa auzoz aldatuta zegoen.

21. Irabazitako lehenengo sariak

- **Erref**: BER-306/031
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:43:18. **Bukatu**: 00:45:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Ateratako sariak. 1944an aurkeztu zen lehen aldiz, eta, soldadu zegoela, Logroñoko lehiaketa batean parte hartu zuen; kapitainak bultzatuta aurkeztu zuen koadroa. Madrilera eraman zuten gero lan hori, eta han zazpigarren geratu zen; brontzezko domina eman zioten.

22. Erakusketak

- **Erref**: BER-306/033
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:46:02. **Bukatu**: 00:46:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Bilbon eta Gasteizen jarri izan ditu erakusketak; Donostian ez, erakusketa kolektiboak bakarrik. Baionara ijitoen kanpalekuan margotutakoa eraman zuen.

23. Mendizalea umetatik

- **Erref**: BER-306/035
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:46:50. **Bukatu**: 00:49:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:
Mendian gaztetik ibili da asko. Zazpi urterekin Elosun egon zen, gerar aurretik. Garbera joaten ziren, handik Intxortara eta Asensiotik buelta. Pirineotara 60 urterekin joan zen, eta baita 3.000koa igo ere; aurretik Ordesan zegoen egonda, gaztetan, pintatzen.

24. Pintura eta mendia uztartzen

- **Erref**: BER-306/036
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:49:34. **Bukatu**: 00:51:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:
Udalara joaten zen pintatzera, oinez. Miravalles baserrira joaten zen bazkaltzera, Asensioko ermita margotzen egon zenean (Elgeta). Josu ilobak konpondu zuen ermitako sabaiko margolana, handik urte batzuetara.

25. 600 erretratu inguru egin ditu

- **Erref**: BER-306/040
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:54:27. **Bukatu**: 00:56:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Pintatzetik bizi izan da, eta ez zen erraza. Gaur egunean zailagoa izango litzateke. Enkargu asko egin ditu, paisaiak... eta 600 bat erretratu. Gutxi ditu gordeta, banaka batzuk. Arrasateko Galarta margolariarekin pintatzen zuen sarri.

26. Okinaren koadro batzuk

- **Erref**: BER-306/043
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:57:58. **Bukatu**: 00:59:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Horman zintzilikatutako koadroak erakusten dituzte. Etxetik ikusten zuen paisaia, 90eko hamarkadan; asko aldatu da urte gutxian. Azkoaga.

27. Pariseko argazkia

- **Erref**: BER-306/045
- **Iraupena**: 0:00:12. **Hasi**: 01:00:13. **Bukatu**: 01:00:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Pariseko argazkian, Migel bera, bera bizi zen etxeko alaba eta Marcel.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-09

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com